



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

2019KO UDAL AURREKONTU-PROIEKTUARI BURUZ GIZARTE KONTSEILUAK EGINDAKO ARAUZKO TXOSTENA

SARRERA

Txosten honen helburua Herri Partaidetzarako Udal Araudiaren 78. artikulua betetzea da, izan ere, bertan jasotzen denez, Gizarte Kontseiluaren eginkizunetako bat Udal Gobernuak aurkeztutako udalaren aurrekontu-proiektuari buruz arauzko txosten bat prestatzea baita.

Hasteko, gogorarazi nahi dugu aurten, 2019ko udal aurrekontuetan eragin handiagoa erdiesteko helburuz eta Gizarte Kontseiluak hala erabaki duelako, maiatzeko eta ekaineko hilabeteetan, gobernu-taldearen aurrekontu-proiektua aurkeztu aurretik, ezohiko bilera batzuk egin zituztela elkarguneez, auzoguneez eta partaidetza-organorik gabeko beste gai-arlo batzuek, aipatutako aurrekontu-proiektu horren prestakuntzan kontuan hartu beharreko lehentasunei buruz herritarrek eztabaidatzeko eta ekarpenak egiteko prozesu baten barruan. Bilera horietan ateratako ondorioekin, proposamenen agiri bat landu zuten, eta hain zuzen ere, Gizarte Kontseilu honek udal talde politiko guztiei aurkeztu zien joan den uztailaren 11n, ezohiko Ogasun Batzorde batean.

Orain, halere, komenigarria da ikustea jendaurrean aurkeztu den aurrekontu-proiektu horrek zein neurritaraino erantzuten dien Gizarte Kontseiluak eskaturik elkarguneetan eta auzoguneetan lehentasun batzuen arabera egindako proposamen horiei.

AURREKONTU-PROIEKTUAREKIN LOTURIK

Aurrekontu-proiektua eta Gobernu Taldeak joan den azaroaren 14an egindako Entzunaldi Publikoaren saioan ezagutzera eman eta idatziz igorri diguten informazioa aztertuz gero, ondorengo datu hauek azpimarratuko genituzke:

- Gizarte Kontseiluaren agirian 19 gai-arlotan banaturik aurkeztutako 144 proposamenetatik 68 kontuan hartu dira aurrekontu-proiektuan, eta horietatik 45ek kontu-sail ekonomiko zehatzak dituzte dagoeneko, eta gainerakoak beste programa edo plan zabalago batzuekin harremanetan



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

jarri dira, horien barruan bilduta gera baitaitezke. Hau da, kontuan hartu dira aurkeztutako proposamenetatik % 47, eta % 31 argi eta garbi identifikatu dira, proposamen horietarako kontu-sail bereziak zehaztuz.

Gizarte Kontseilu honek egindako proposamen eta lehentasunak kontuan hartu izanari buruz balioespen positiboa egiten dugu, gizarte-elkarteen eta herritarren ordezkaritza zabal batek elkarguneen eta auzoguneen bitartez ezagutzera emandako kezka eta premietatik datozelako horiek guztiak.

Hala eta guztiz ere, onartutako proposamen horietako batzuek dagoeneko abian diren programa edo jarduerekin loturik daudela uste dugu, nahiz eta kasu batzuetan ez duten nahiko zehaztasunik proposamena gauzatuko dela bermatzeko.

Gainera, kasu guztietan ez da ikusten ezezko erantzuna nahikoa argudiatuta dagoenik, eta proposamen batzuei ez zaie erantzunik ere ematen.

Beste alde batetik, azpimarratu beharra dago aurkeztutako proposamenak lehentasunaren arabera zehaztuak zeudela, eta zenbait arlotan proposamen batzuei lehentasun handiagoa eman zitzaiela, nahiz hori ez duten kontuan hartu.

Horregatik, Gobernu Taldeari eta gainerako udal talde politikoei eskatzen diegu aurrekontua izapidetzen den bitartean, oraindik ere abian baitago prozesu hori, bere garaian aurkeztu genien lehentasunen inguruko aurrekontu-txostena berrikusi dezatela eta kontuan har ditzatela lehentasun horiek.

AURREKONTU-PROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOAREKIN LOTURIK

Aurrekontu-proiektuari buruz jasotako informazioan, uste dugu aurrerapen batzuk egin direla aurreko urteekin alderatuta, esate baterako, eskaini diguten eta webgunean argitaratu duten informazioari dagokionez, bertan 2019rako kontu-sail ekonomikoak 2018rakoekin alderatzen baitira, eta igoerak, jaitsierak eta berrietasunak nabarmentzen dira, edota egindako proposamenei erantzunez igorri diguten agiria eta entzunaldi publikoaren bideo-grabaketa.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Baina egia da oraindik ere hobetzeko marjina handia dagoela eta aurrera egiten jarraitu behar dugula:

- Informazio hori herritarrengana eta, bereziki, gazteriarengana iritsi dadin komunikazioa hobetu behar dugu.
- Informazio argiagoa eta ulerterrazagoa eskaini behar dugu, eta entzunaldi publikoaren saioak arinagoa eta ulergarriagoa izan behar du.
- Udal Sozietateen (AMVISA, TUVISA, ZABALGUNEA 21) aurrekontu-proiektuari buruz ere informazio argia eman behar da.
- Aurrekontuaren osotasun horren barruan berdintasunaren, dibertsitate funtzionalaren, euskararen eta kulturartekotasunaren ikuspegiak zeharka jaso behar dira.
- Aurrekontu-proiektu horren barruan, beren finantzaketa lurzoruaren udal ondarea saltzearen mende duten jarduerak azpimarratu behar dira.

ELKARGUNE ETA AUZOGUNEETAN PROPOSAMENAK EGITEKO PROZESUAREKIN LOTURIK

Eta Gizarte Kontseiluaren arauzko txosten hau prestatzearekin batera egindako partaidetza-prozesuari buruz azpimarratu nahi dugu oso garrantzitsua dela hori pixkana-pixkana hobetzen joatea eta Udal honen aurrekontuak urtero izapidetzeko prozedura horren barruan modu natural batean txertatzen joatea.

Halaber, uste dugu beharrezkoa dela dauzkagun partaidetza-organo ireki desberdinek (elkarguneek, auzoguneek, merkataritza, turismo eta industria arloko mahaiek, eskola-kontseiluak...) modu koordinatu batean eta, bai helburuei eta bai hiri-ereduari dagokionez ere, nolabaiteko koherentziaz eta elkarrekintzaz, Gizarte Kontseilu honen bitartez jakinarazi diezazkiotela Udal Korporazioari kolektiboek eta herritarrek aurrekontuarentzat dituzten lehentasunak eta premiak, eta gero, balioetsi dezatela aurrekontu-proiektuan emandako erantzuna. Alde horretatik, Gizarte Kontseilu honek konpromisoa hartzen du ebaluaketa-saio berezi bat egingo duela, hurrengo urteei begira prozesu hori hobetu dadin.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu 2019ko aurrekonturako Gizarte Kontseiluaren lehentasunen agiria prestatzeko egindako elkargune eta



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

auzoguneen 9 saioetan parte hartu duten 142 pertsoneri (79 erakunde desberdin eta beren izenean aritu diren 31 pertsona izan dira guztira). Eta berriro eskatu nahi diogu Gobernu Taldeari, baina baita gainerako udal talde politikoei ere, kontuan har ditzatela, aurrekontua izapidetzeko geratzen den epealdi honetan, aurkeztutako proposamenak, eta horiez gain, aurrekontu-proiektuan jaso diren gainerakoak ere bai.

Eta beti bezala, Gasteizko herritarrak animatu egin nahi ditugu aktiboki parte hartzera, herritarrek parte hartzeko organoen bitartez (Auzoguneak, Elkarguneak...), gure udalerriak dituen diru-sarrera eta gastuei buruzko etorkizuneko eztabaidetan, denon artean eraiki nahi dugun hiri-eredua definitzeko balio izango dutelakoan.

Stua.: Belén Martínez
Gizarte Kontseiluko Lehendakaria